

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Altsasuko Udalak segurtasun publikoaren arloko lankidetzahitzarmena sinatu dute

Foruzaingoko agenteek herriko Udaltzaingoari zaintzarako laguntza eskainiko diote

Osteguna, 2018.eko ekainak 28

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria den María José Beaumontek eta Altsasuko alkatea den Javier Ollok lankidetzahitzarmena sinatu dute gaur segurtasun publikoaren arloan zerbitzu espezifikoak emateko. Akordio honen bitartez, Foruzaingoko agenteek aldi baterako laguntza emango diote herriko Udaltzaingoari, segurtasuna eremu guztietan bermatze aldera.



Javier Ollo alkatea eta Beaumont kontseilaria hitzarmenaren sinaduran

Hitzarmena indarrean sartuko da datorren uztailaren 1ean eta sei hilabeteko epea izango du (luzagarria) Udala Udaltzaingoaren Agenteen plazak hornitzeko izapidetzen ari den prozesua amaitu arte. Horrela, Hitzarmenaren barruan, bi polizia batere eta era koordinatuan eta modu eraginkorrean lan egingo dute, eskumeneko eraginkortasun-ezak eta erredundantziak zuzentze aldera. Modu horretan, Foruzaingokoak baliabide materialak eta giza baliabideak jarriko ditu era dinamikoan, eta Altsasuri honako hauen inguruko zerbitzuak eskainiko dizkie: hiriguneko trafikoa eta bide-segurtasuna, istripuak eta arrisku-egoerak prebenitzeko lanak edota zaintza eta babesa jende pilaketa handietan. Hitzarmenak urteko 72.800 euroko zuzkidura ekonomikoa izango du.

Foruzaingoaren buruak, Altsasuko Komisariako buruak, herriko alkateak eta Udaleko beste ordezkari batek Batzorde bat osatuko dute, emaitzen segimendua eta ebaluazioa egiteko. Organo hori Hitzarmena betetzeaz eta Foruzaingoaren eta Altsasuko Udaleko Udaltzaingoaren arteko koordinazioa eraginkorra izateaz arduratuko da.